BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA
2025-2027 ekitaldien finantza auditoretza
ESPEDIENTE ZK.: 2025/02/PA

AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen Kontuen Auditoriaren 33. artikuluaren arabera, UPV/EHUko Udako Ikastaroak Fundazioak urteko kontuak kanpo-auditoriaren pean jarri behar ditu, eta, hasierako kontratazioaldia amaitu ondoren, hurrengo kontratuak gehienez ere 3 urtekoak izango dira.

Goiko arau horietan legez xedatutakoa betetze aldera, finantza auditoretza kontratatu da.

LANAREN XEDEA

Kontratuaren xedea honako hau da: UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren 2025eko, 2026ko eta 2027ko kontabilitate ekitaldietako urteko kontuen finantza auditoretza egitea, Urteko Kontuei buruzko Auditoretza Txosten eta guzti.

PROIEKTUAREN FASEAK ETA ZEREGINAK ZEHAZTEA

Lana zehaztapen jakin batzuen arabera egingo da, eta zehaztapen horiek adjudikatzailearen kontratu bidezko betebehar gisa adieraziko dira esanbidez; hona hemen zehaztapenak:

a) UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren 2025eko, 2026ko eta 2027ko kontabilitate ekitaldietako urteko kontuen finantza auditoretza egitea, Urteko Kontuei buruzko Auditoretza Txosten eta guzti.

b) Kontuen auditoretza egiteko epeak ezin izango du gainditu agiri honetan finkatutako epea. Nolanahi ere, auditoretza txostenek eskuragarri egon behar dute UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren administratzaile orokorrak eta UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioaren Patronatuak urteko kontuak merkataritzaren arloko legeetan finkatutako epearen barruan prestatu eta onartu ahal izan ditzaten.

c) Auditoreen Txostenak euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu behar dira.

LAN PLANGINTZA

Lanak otsailaren bigarren hamabostaldian aurkeztu beharko dira auditoretzaren ariketaren ondoren. UPV/EHUko Uda Ikastaroak Fundazioak informazioa aurreratuko du eta behin betiko itxiera behar adinako aurrerapenez jarriko die auditoreei epe hori betetzeko.